



HIZKUNTZA BERRI BAT IKASTEKO METODOLOGIA

Bigarren hizkuntza edukien bidez irakastea

Edukien bidezko atzerriko hizkuntzen ikaskuntzak curriculumaren edukiak irakasten ari den hizkuntzan integratzen ditu. Metodo horrek planteamendu hau du oinarri: hizkuntzen irakaskuntza jadanik ez da irakasle espezializatu batzuek irakasten duten aparteko curriculum bat, horrela ikasi nahi den hizkuntza edukiak ikasteko bide bihurtzen da, eta ikasleek eduki horien negoziazioaren bidez ikasten dute.

Hurbilpen pedagogiko hori 80ko hamarkadatik aurrera sortu zen, murgiltze-programetan lortutako emaitzen ondorioz. Izan ere, programa horietan curriculum osoa edo horren zati bat bigarren hizkuntza baten bidez irakasten da.

Hizkuntzaren irakaskuntza eta curriculum-edukiak batzean, testuinguru egokia sortzen da ikasleak dituen prestakuntza-premiak eta akademikoak behar bezala garatzeko eta betetzeko; eta, horren ondorioz, ikasleak, hizkuntzan eta komunikazio-trebetasunetan ez ezik, trebetasun akademikoetan eta kognitiboetan ere egiten du aurrera.

Aldi bereko ikaskuntza horretan, edukiak esperientzia eta ezagutza berriak eskuratzeko balio dute, bai eta ama-hizkuntzan jadanik landu den ezagutza zabaltzeko eta indartzeko ere.

Edukien hautaketa eta plangintza

Hizkuntza eta edukiak batera irakasten dituen irakaskuntzan, edukiak aukeratu eta planifikatzeko irizpideak zehazteaz gain, eduki horiek programa osoan artikulatzeko era ere landu behar da.

Hizkuntza edukien bidez irakasteak egokitzapen asko eskatzen ditu, hizkuntzari eta edukiari dagokionez; batez ere, ikasturtearen edozein uneetan sartzan diren ikasleak baditu helburu. Ikasleak zenbat eta nagusiagoak izan, orduan eta korapilatsuagoak izango dira egin beharreko egokitzapenak, ikasle horien eskakizun kognitiboak eta interesak ez baitatoz bat horiek negoziatzeko behar diren hizkuntza-gaitasunekin.

Ikertzailearen arabera, edukiak **irizpide linguistiko**en, **kognitibo**en eta **motibazio**koen arabera aukeratu behar dira.

Irizpide linguistikoak

Irizpide linguistikoek ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren maila eta lortu nahi diren helburuak hartu beharko dituzte kontuan; izan ere, ez da gauza bera hasi berriak diren ikasleei irakastea edo maila ertainekoei irakastea. Hizkuntza-gaitasun urriko mailetan lan egiten denean, hobe da hizkuntza bera asko lantzea eskatzen ez duten arloak aukeratzea, ezagutza-eskaerak zein diren alde batera utzita. Kalkulu, geografia, gorputz-hezkuntza, arte eta horrelako arloek eman dezakete hurbilpen integraztaileagoa egiteko aukera; batez ere, proposatzen diren jarduerak manipulaziozkoak eta mugimenduzkoak baldin badira (neurtzea, pisatzea, esperimentatzea...)

Arlo bat aukeratzekoan, kontuan hartu behar da hizkuntza erabiltzeko zenbait era ikas daitezkeela. Alde batetik, giza zientziak bereiz daiteke, eta, bestetik, arlo zientifikoa eta teknikoa. Lehen multzokoan hizkuntza gehiago hurbiltzen da hizkera orokorrera: lehen multzokoan hizkeran sartzan diren esanahi-eremuak hurbilago daude eguneroko bizitzan erabiltzen direnetik. Hizkuntza tekniko eta zientifikoa, aldiz, esanahi-eremuak askoz espezifikagoak eta murriztagoak dira.



Irizpide kognitiboak.

Edukiak aukeratzeko aholkua ematen diguten irizpideak zehazterakoan, edukiek dakarten eskaera kognitiboa hartu behar da kontuan:

- Ez da neurrigabea izan behar.
- Proposamenak intelektuala, integratzailea eta motibagarria izan behar du, erronka ekarri behar du.
- Zer bait berria ekarri behar du, aurrekoaren errepikapen hutsa izan gabe.
- Ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitu behar du.
- Kontu handiz graduatu beharko da aurrezagutzen arabera (berrikuntzarik dakarren, suspergarria den edo ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera prozesa daitekeen).

Motibaziozko irizpideak.

Betiere ikasleen "interesetara" egokitu behar da. Interes horiek berez sor daitezke, baina batzuetan irakasleak hezkuntza-proposamenen bidez sortzen saiatu beharko du. Bizitzaren etapetan sortzen diren desberdintasunak hartu behar dira kontuan, interesak zein diren jakiteko eta esku-hartzeak interes horien arabera antolatzeke. Txikienekin lan egiten denean, jokia, irudimena eta manipulazioa sustatzen dituzten jarduerak eskaini behar zaizkie, oso testuinguru antolatuetan eta argibide ugari emanez. Lehen Hezkuntzan, haurrek badute jadanik mundua (landareak, animaliak, unibertsoa...) ezagutzeko interesa, eta horregatik, hizkuntza irakastea interes hori asetzeko baliagarri izango den tresna bat izan daiteke. Nerabe bat honako puntu hauetan interesatuta egon daiteke: arazoak konpontzea, behar eta interes intelektual edo linguistiko espezifiko batzuk asetzea... Hori dela eta, interes horiek hartu beharko dira kontuan eta praktika hainbat eskaeraren arabera antolatu beharko da.

Plangintzari dagokionez, ulermenean eta ekoizpenean kontuan hartu beharko ditu "derrigorrezko hizkuntza-ikaskuntzak" deritzenak eta "hizkuntza-ikaskuntza bateragarriak" (Show, Met eta Genesee, 1989), elkarren osagarriak eta ezinbestekoak baitira gaitasun osoa lortzeko.

Lehenengoek hiztegiaren itemei eta landu behar diren kontzeptuei lotutako egiturei egiten diete erreferentzia. Bigarrenak funtzio komunikatiboetarako buruzkoak dira: jarraitu eta argibideak ematea (erantzun fisikoa —psikomotrizitatea, adibidez— eskatzen duten jardueretan), iragarri eta deskribatzea (zientzietako esperimentuetan, esate baterako), etab.

"Hizkuntza-ikaskuntza bateragarri"-en artean, hasieran, batez ere, inportantea da "antolaketa-hizkuntza" kontuan hartzea; hots, irakasleek eta ikasleek jarduerak arautzeko erabiltzen dituzten esamoldeak (*ulertu al duzu?, berriz esan, ez dut ulertu...*). "Antolaketa-hizkuntza" horrek agerikoa izan behar du eta irakatsi egin behar da, hasiera batetik ikaskuntza kontziente eta transferigarri bihurtu dadin. "Lan egiteko erak" planifikatzea ere garrantzitsua da. Horrek puntu hauek zehaztea eskatzen du: hizkuntzaren erabilpenerako material lagungarriak, ikasleek egin behar dituzten jarduerak, eta ikasle-taldekatzeak (talde handia, talde txikia, bikoteak, banakakoa).

Prozedurak

Prestaketa

- Eduki-helburuak eta hizkuntza-helburuak argi zehaztea eta ikasleentzat egokiak diren ziurtatzea.
- Edukiak ikasleen behar akademikoetara eta hizkuntza-beharretara egokitzea, material osagarria erabiliz.

Gelan

- Gako-hitzak enfazatu; eta ikasleen esperientzia pertsonalen eta ikasi behar dituzten edukien arteko loturak azpimarratzea.
- Lanak argi eta garbi azaltzea, azalpenak begien eta keinuen bidez laguntzea eta azalpenak ikasleen ezagutza-mailara egokitzea.
- Elkarrekintza sustatzea, ikasleek zenbait lantaldeetan parte hartuz, eta egindako galderari erantzuna emateko behar den denbora ematea.
- Grafikoak, ikusmen-baliabideak, taulak eta abar erabiltzea.



- Irakurketan eta idazketan aurrerapenak egiteko hainbat trebetasun eta ahozko trebetasunak sartzen dituzten jarduerak antolatzea.

Birpasatzea eta ebaluazioa

- Lexikoa eta funtsezko kontzeptuak berrikustea, hainbat tresna erabiliz.
- Helburuen ulermena eta ikaskuntza ebaluatzea.
- Bi atal hartuko dituzten ebaluazio-probak egitea: bata irakasgaiaren ezagutza balioesteko (test baten gisa egituratua, adibidez), eta bestea hizkuntza-alderdia balioesteko, galdera irekien bidez.

Ondorioak

- Edukien bidezko hizkuntza-irakaskuntzaren arabera, hizkuntza tresna bat da, aldi berean komunikatzeko eta arloen edukiak ikasteko balio duena.
- Hurbilpen horretan, hizkuntza-helburuak eduki horietatik berorietatik kontestualizatzen dira, hizkuntza esanguratsua erabiltzen saiatuz. Hizkuntza era naturalean erabiltzen da, komunikatzeko tresna modura, eta hizkuntzaren prozesamendua ere errazten du.
- Erreferentziako edukiek eskola-curriculum osatzen dute eta, eskuratzen diren heinean, arian-arian ikaslearen esparru kontzeptuala eta trebetasunak zabaltzen dituzte.
- Edukietan oinarritutako irakaskuntzaren antolamenduan faktore hauek dira nagusi: programaren testuingurua bera, irakaskuntza nola eta noiz hasten den, eta hezkuntza-etapa osoan nola jarraitzen duen. Kasu bakoitzean, alde kognitiboari begira pizgarriak izateaz gain, ikasleen hizkuntza-helburuetara eta gaitasunera egokitzen diren edukiak aukeratu behar dira.
- Metodo horrek koordinazio estua eskatzen du, arauzko curriculumaz arduratzen diren irakasleen eta hizkuntza-errefortzuaz arduratzen direnen arteko lankidetzaren estua, alegia.

(Itzulpena: Ricardo Cruz Lopez-Claret)

**Irakurketa gehigarriak**

ARNAU, J. (2001). "La enseñanza de la lengua extranjera a través de contenidos: principios e implicaciones prácticas", in *Actas del Congreso Internacional*. Oviedo. Anaya. MEC.

ARNAU, J. (1999). "Aproximaciones pedagógicas en la enseñanza de la segunda lengua a través de las matemáticas en la inmersión temprana". *Infancia y aprendizaje*, 86, 41-56.

LAPLANTE; B. (2000). «Apprendre en sciences c'est apprendre à parler sciences: des élèves d'immersion nous parlent des réactions chimiques», *The Canadian Modern Language Review*, 57,2,245-271.

MET, M. (1999). "Impulsando el desarrollo de la segunda lengua mediante la enseñanza de contenidos". *Infancia y aprendizaje*, 86, 13-26.

PAVESI, M; BERTOCCHI, D; HOFMANNOVÁ, M eta KAZIANKA, M (2001) "Enseñar en una lengua extranjera. Cómo utilizar lenguas extranjeras en la enseñanza de asignaturas": <http://www.ub.es/filoan/CLIL/profesores.pdf>

SAINZ, M. eta BILBATUA, M. (1999). "Proyectos, géneros textuales y modos de intervención en cada ciclo de educación primaria. Una experiencia de modelos de inmersión". *Infancia y Aprendizaje*, 86, 57-71.

SNOW, M; MET, M. eta GENESEE, F. (1989) "Framework for the integration of Language and Content in Second/Foreign Language Instruction" *Tesol Quarterly*, 23, 201-217.

TRUJILLO, F. (2002). "Enseñanza del español a inmigrantes en el contexto educativo". *Frecuencia L*. Maiatza-Ekaina, 7-11.